

5. (1517 urtea)



5.1. Altzolarats jauregiko Domingo Arronaren eta Grazia Arronaren agiriak

- 1517-III-7an, Zestoako Altzolarats jauregian Domingo Arrona jauna zaurituta ohean zegoen. Zestoako alkate zen, baina ezin zituen alkate-lanak egin. Horregatik Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Martinez Amilibikoa eskribaua izendatu zuen alkateorde.

Lekuko Zestoako Martin Santxez San Miliangoa eta Joan Aizarna pilotua izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 5] agiria).

- 1517-IV-25ean, Altzolarats jauregian, Blas Artazubiaga eskribaua bertan zela, Juliana Gebara alarguna (Maria Arronaren ama) eta bertako jaun Domingo Arrona (Maria Arronaren aitona) elkartu ziren. Juliana Gebarak ahalordea eman zion Domingori Altzolarats jauregian eta bertako ondasunetan zegokion senipartea eskura zezan.

Lekuko Sebastian Artazubiaga, Joan Martinez Amilibikoa eta Martin Legarda izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 16] agiria).

Egun eta leku berean, Domingo Arrona jaunak bi ahalorde eman zituen. Batean zioenez, Domingo Zestoako alkate zen, baina negoziotara Gipuzkoatik kanpo joan beharra zeukan (Valladolid, Martin Olaskoaga zurginarekin zuen auziaren jarraipena egitera). Beraz, lehen alkateorde izateko Joan Martinez Amilibikoari emana zion ahalordea kendu eta Sebastian Artazubiagari eman zion.

Lekuko Joan Martinez Amilibikoa eta Sebastian Elkano getariarrak, eta Joan Martinez Amilibikoa zestoarra izan ziren. Sebastian Elkano lekukoa, hain zuzen, Joan Sebastian Elkano ospetsuaren anaia zaharrena zen.

Ondoren, eta lekuko lehen aipatutako hirurak zirela, Domingo Arronak ahalordea eman zien Sebastian Artazubiaga, Esteban Artazubiaga eta Martin Santxez

San Miliangoari, Domingo Arronak zituen ondasunak kudea zitzaten (ikus [XVI. m. (17) 17] agiria).

Jarraian, leku berean, bertako Domingo Arrona jaunak ahalordea eman zion Getariako Sebastian Elkanori. Domingok burdinak zeuzkan Siziliako Messinan bertako mizer Angelo eta Bernaldo Faronen esku. Lehen burdina haiek kudeatzeko ahalmena Joan Martinez Bildaingoak zuen (Sebastianen aita-ginarrebak), baina Bildaingoa hil egin zen, eta haren ahalmena izango zuen Sebastianek.

Messinan burdina mehetik 515 kintal (Messinako neurrikoak) eta 94 “erretel” zituen (edo 9.875 “ertz” pisu-unitate). Burdina loditik, berriz, 169 kintal eta 64 “erretel” (edo 691 “ertz”). Burdina haietako 28 kintal Joan Domingez Mirubikoarenak ziren, eta gainetakoak Domingo Arronarenak.

Burdina haiek ahalik eta prezio onenean salduko zituen Sebastian Elkanok, hau da, Joan Sebastian Elkano famatuaren anaia zaharrena. Ahalorde-agiria egin zutenean lekuko Joan Martinez Amilibikoa eta Sebastian Artazubiaga zestoarrak eta Joan Martinez Portukoa getariarra izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 18] agiria).

Zestoako Altzolarats jauregiko Domingo Arronak auzia zuen Martin Olaskoaga zurginarekin, honek hari Aiako Saroerri baserrian egindako lanengatik zenbat ordaindu behar zion konpontzen ez zirelako. Auzia lehenbizi Zestoako alkate Fernando Olazabalek epaitu zuen, eta erabakia Martin Olaskoagaren aldekoa izan zen. Ondoren Domingo Arronak Valladolidko Kantzelaritzara jo zuen (ikus [XVI. m. (14) 2] eta [XVI. m. (15) 2] agiriak).

- 1517-V-1ean, Valladoliden, Martin Olaskoaga zurginak ahalordea eman zion Anton Orori, Domingo Arronarekin zuen auzian prokuradore izan zedin. Otxoa Berriz eskribauaren aurrean lekuko Pedro Askoeta eskribaua, Joan Arteaga zumaiarra eta Joan Domingez Areitzagakoa zumaiarra izan ziren.



5.1. irudia.
Altzolarasko
jauregiaren aurriak.

Egun eta leku berean, Domingo Arronak ahalordea eman zion Joan Bitoriari, Martin Olaskoaga zurginarekin Aiako Saroeberriko lanen ordainketaz zuen auzian prokuradore izan zedin. Otxoa Berriz eskribauaren aurrean Joan Martinez Amilibikoa eskribau zestoarra, Joan Diez Peñafielgoa eta Antso Askoeta (Pedro Otxoa Askoetakoaren morroia) izan ziren.

-1517-V-11n, Valladoliden, Joan Bitoria prokuradoreak Zestoako alkateak Domingo Arronaren aurka emandako epaia deusezta zezatela eskatu zuen (ikus [XVI. m. (17) 20] agiria).

Garbi dago bai Martin Olaskoaga eta bai Zestoako alkate Domingo Arrona, egun haietan Valladoliden zirena. Domingo Arrona Joan Martinez Amilibikoa eskribauarekin joan zen, Grazia Arronaren suhiarekin. Domingok horregatik ordezkatu zuen 1517-IV-25ean Joan Martinez Amilibikoa alkateordea Sebastian Artazubiaga kargu horretarako izendatuta (ikus [XVI. m. (17) 17] agiria).

- 1517-V-9an, Zestoan, Grazia Arrona andreak Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean testamentua egin zuen. Zestoako elizan lur emango zioten, Pedro Arbestain zegoen hobian.

Ondoren ongintzarako agindu hauek eman zituen: mairuen gatibu zeuden kristauak askatzeko (Gaztelako 2 erreal), Zestoako elizarentzat (dukat 1), Santa Engraziarentzat (3 txanpon), Aizarnako elizarentzat (erreal 1), Aizarnazabalgo elizarentzat (erreal 1), Joan Otxoa Artazubiagakoa apaizak Zestoako elizan 30 meza emateko, Joan Indo apaizak Zestoako elizan beste 30 meza emateko, Santa Engraziako apaizak beste 30 meza emateko, urtebetez asteazken guztietan Zestoako elizan meza kantatua emateko (6 dukat eta 30 txanpon) eta Getariako San Blas ermitarentzat.

Gero, kobratzeko zeuzkan ondasunen zerrenda egin zuen. Hauek ziren zordunak eta zor ziotena:

- Martin Orendainen oinordekoek 30 kintal burdina eta urrezko 14 dukat.

- Domingo Aizpuru ilobak 20 kintal burdina.

- Maria Bergarak, Antso Berastegiren emazteak, Gaztelako 40 erreal eta 20 erreal ingeles, zoronga batetik.

- Domenja Ausoroetxeak 11 kintal burdina.

- Maria Ondaldek 14 dukat.
- Maria San Joan Ermuak 84 txanpon, zoronga batzuegatik.
- Joan Isasti Gurmendikoak urrezko 6 dukat.
- Domingo Beizamak urrezko 2 dukat.
- Azpeitiko Domingo Oiartzabalek urrezko 4 dukat.
- Joan Kamiok 2 florin eta erdi.
- Joan Perez Arretxeakoak 17 kintal burdina eta 25 florin.
- Joan Ximenezek urrezko dukat 1.
- Sebastian Artazubiagak dukat 1 eta 100 marai.
- Joango Arronak 34 kintal burdina eta Katalinak 33 florin.
- Madalena Arronak 30 txanpon, zoronga bategatik.
- Maria Perez Barrundikoak 2 dukat eta Gaztelako 4 erreal.
- Margarita Lizarraratsek dukat 1 eta 140 sos zuri.
- Beduako errenterian 18 barra eta erdi burdina eta 6 kintal burdina zituen.
- Domingo Arronak 8 dukat.

Grazia Arronak Maria alabari 600 kintal burdinako dotea emana zion, eta alabaren ordainagiria zeukan. Joan Martinez Amilibikoa suhi zuen, Mariaren senarra zelako. Graziak bere oinordeko unibertsal Maria alaba izendatu zuen. Testamentuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Garratza, Joan Artiga eta Esteban Artazubiaga (ikus [XVI. m. (17) 21] agiria).

Testamentu honetan argi eta garbi ikusten da Grazia Arronak bere bizialdian bankari-lanak egin zituela. Bestalde, Domingo Arronaren arreba zelakoan gaude. Besteak beste, Joan Martinez Amilibikoa suhia oso loturik ikusten da Domingo Arronarekin.

- 1517-V-26an, Zestoako Altzolarats jauregian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean bertako Juliana Gebara alargunak (Maria Arronaren amak) agiria egin zuen, lehengo beste bat berronetsiz. 1516-IX-15ean egin zuen agiri bat bere eskubideak Maria alabari utziz eta Altzolarasko jabegoa Domingo Arronarena zela aitortuz (ikus [XVI. m. (16) 5] agiria), eta 1516-IX-15ean berretsi egin zuen (kus [XVI. m. (16) 77] agiria).

Orduan ere, 1517-V-26an, gauza bera berretsi zuen, Zestoako Joan Martinez Amilibikoa eskribaua, Martin Santxez San Miliangoa eta Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza lekuko izanik (ikus [XVI. m. (17) 24] agiria).

Egun eta leku berean, Juliana Gebara alargunak Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean lehengo eskriturak berriz berretsi zituen. Julianak zioenez, aita Hernando (edo Fernando) Gebara zenak eta ama Elena Lopez Zumaiakoak Maria Ortiz Gebarakoaren (Julianaren ahizparen) ezkontza prestatu zuten. Getariako Pedro Ibañez Aldamarkoa zen ahizparen senarra. Pedoren aita Nikolas Aldamarrek eta ama Maria Perez Meaurikoak semeari dote gisa 1.600 kintal burdina barratan eman zizkioten. Horrez gain, Hernando eta Elenari maileguz 1.566 kintal eman zizkieten Altzolarasko ondasunen bermeaz. Zestoako Joan Martinez Ibañetako eta Joan Martinez Zabalakoa eskribauek egindako agirietan jaso ziren ordainketa haiek.

Dena den, Maria Ortiz Gebarakoa seme-alabarik gabe eta testamentua egin gabe hil zen. Ondorioz, Altzolarasko jauregia bere ondasunekin Pedro Ibañez Aldamarkoa, Nikolas Aldamar eta Maria Perez Meaurikoaren esku geratu zen; izan ere, 2.900 kintal burdina zituzten jasotzeko, arbitroen epai batek erabaki zuenez. Horrez gain Elena Lopez Zumaiakoari (Julia-



5.2. irudia. Getariako eliz azpiko pasabidea.

naren amari) 650 kintal zor zitzaizkion; baita diru eta burdina asko ere beste zenbait pertsonari.

Zor haiei guztiei aurre egiteko modurik ez zuen Juliana Gebarak; ez eta haren anai-arrebek ere. Ondorioz, Altzolarasko jauregia bere ondasun guztiekin enkantean saldu egin behar izan zuten, eta Zestoako Domingo Arrona ontzi-maisuak erosi zuen 5.000 kintal burdina ordainduta. Azkoitiko Migel Perez Idiakaizkoa eskribauak (Gipuzkoako korrejidorearen Entzutegikoak) egin zuen ondasun haien erremate-agiria. Domingok ordainduta, Juliana Gebara eta anai-arrebak zor haietatik libre geratu ziren.

Horregatik Juliana Gebarak, Hernando eta Elena gurasoak eta Maria Ortiz ahizpa hil zirenez gero, haiengandik anai-arrebek izan zitzaizketen eskubideen herenari uko egin zien, eta ontzat hartu zuen Domingo Arrona denaren jabe izatea. Hantxe zegoen Domingo, eta haren aurka ez joateko betebeharra bere gain hartu zuen Julianak. Lekuko Zestoako Joan Martinez Amilibikoa eskribaua, Martin Santxez San Miliangoa eta Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 25] agiria).

- 1517-VI-7an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Altzolarats jauregiko Domingo Arrona eta Usurbilgo Migel Zelaiandia elkartu ziren. Migel Zelaiandiak egun hartara arte Domingorekin izandako harreman guztietan zuen zorra ordaindu egin zuen. Ondorioz, Domingo Arronak ordainagiria eman zion usurbildarrari.

Ordainagirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Lizaso, Joan Urbieta eta Joan Martin Indo (ikus [XVI. m. (17) 28] agiria).

- 1517-VI-23an, Zestoako Altzolarats jauregiaren ondoan, Domingo Arrona alkatea eta Joan Martinez Amilibikoa, Zarauzko eskribaua, zeuden. Haien aurrera Maria Beltran Urbieta (Domingo Artigaren alarguna) eta Joan Urbieta semea azaldu ziren. Maria Beltran eta Domingo Artiga zenaren gainerako seme-alabak ere han ziren: Domingo Artiga (lehen tontsurako elizgizona), Maria Artiga eta Katalina Artiga.

Lehen Maria Beltranen seme-alabek tutoreak eduki zituzten, baina Domingo, Maria eta Katalina seme-alabak hamabi eta hamalau urteko adinera heldu zi-

ren eta zaintzaileak behar zituzten. Eskea egin zioten alkateari Maria Beltran amak eta Joan Urbietta anaia zaharrak zaintzaileak izenda zitzaizkion.


Alkateak anai-arreba gazteei galdetu egin zien ea zaintzailetzat zein nahi zituzten. Maria Beltran Urbietta ama eta Joan Urbietta anaia aukeratu zituzten. Amak eta anaiak baiezkoa eman zuten, eta, zin egin ondoren, Domingo Arrona alkateak zaintzaile izendatu zituen. Bi zaintzaileek Domingo Goiburu (Bengoetxeko jabea) eta Martin Perez Kortazarkoa aurkeztu zituzten fidatzaile gisa. Hauek ere hantxe egin zuten zina.

Alkateak bi zaintzaileei ahalordea eman zien anai-arreba adingabeen izenean haien auzietan eta gainerako negoziotetan ordezkari izan zitezkeen. Agiri hartan lekuko Arroako Joan Oviden, eta Zestoako Domingo Beltran zurgina eta Esteban Altzolarats (Joan Altzolaratsen semea) izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 30] agiria).

- 1517-VIII-8an, Oikian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Fernando Arreitza hauspagina azaldu zen. Fernando Arreitza zioenez, Altzolarats jauregiko Hernando Gebarak 39 dukateko zorra egin zion, baina bizi zela 8 dukat ordaindu zitzaizkion. Beraz, 31 dukat zeuzkan jasotzeko.

Zor hura Altzolarats jauregiko Domingo Arronaren eskuetara pasatzeko agiria egin zuten. Lekuko Joanes Gebara apaiza, Martin Legarda eta Joan Zuube zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 37] agiria).

- 1517-VIII-24an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Gebara apaiza eta Altzolarats jauregiko Domingo Arrona elkartu ziren. Domingo Arronak Zestoako Joan Martinez Ibañetakoa eskribauaren aurrean Fernando Gebarak Joan Gebara apaizari egindako 39 dukateko zorraren zati bat (31 dukat) ordaintzeko ardura hartu zuen. 31 dukat haiek eman zitzaizkion, eta Gebara apaizak ordainagiria eman zion Domingo Arronari.



5.3. irudia. Aizarnako elizataria.

Agirian lekuko Martin Legarda, Martin Kortazar eta Martin Edarritzaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 42] agiria).

5.2. Zestoako Artazubiaga familiakoen agiriak

- 1517-I-7an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Urbietak ordainagiria eman zion Martin Otxoa Artazubiagakoari. Martin Otxoak lau bat hilabete lehenago Joan Urbietari eta anai-arreba Domingo, Maria e Katalina Urbietta zestoarrei ahalordea eman zien 60 kintal burdina Zestoako Jofre Ibañez Altzolaraskoari, Maria Beltran Urbietari eta Domingo Bengoetxeari kobratzeko.

Azken hiru zestoarrek Martin Otxoari Joan Urbietaren eta anai-arreben administratzaile zelako zor

zizkioten aipatutako kintalak. Joan Urbietta eta anai-arrebak Domingo Artiga zenaren seme-alabak ziren. Ordainagirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Arretxekoa, Joan Aizarna pilotua eta Pero Otxoa Igartzakoa eskribaua (ikus [XVI. m. (17) 1] agiria).

Zestoako Martin Otxoa Artazubiagakoak Aiako Arrazubiko ondasunen erdiaren gozamina edo usu-fruktua Joan Ruiz eta Joan Lopez Arteagakoa anaia adingabeen izenean kudeatzeko konpromisoa hartu zuen. Adingabeen amona Maria Ibañez Altzolaraskoa zenak Martin Otxoa kudeaketatik onik aterako zuela agindu zion. Ondorioz, Martin Otxoak, kaltea izan zuelako, aurreko urteetan hasita auzia zuen Joan Ruiz eta Joan Lopezen aurka (ikus [XVI. m. (15) 3] eta [XVI. m. (16) 56] agiriak).

1517. urtean auziak jarraipena izan zuen Valladolidko Kantzelaritzan. Joan Ruiz eta Joan Lopezen prokuradore Anton Orok 1517-I-19an eskea egin zien epaileei, haien aurka emandako epaia deusezta zezaten.

- 1517-I-13an berriz, Martin Otxoa Artazubiagakoaren Joan Bitoria prokuradoreak aurkeztu zien idaztia epaiaren alde eginez.

- 1517-II-20an, Valladoliden, epaileek bi aldeei 30 eguneko epea eman zieten, auziari berrikuspen-maila emanez, azkenean aurkeztutako arrazoiak behar bezala frogatzatzen.

- 1517-III-2an Gipuzkoako korrejidoreordeak Joan Martinez Amilibikoa eskribauari agindua bidali zion, Joan Ruiz eta Joan Lopez Arteagakoa anaiek eskatuta, aita Joan Ibañez Amilibikoa eskribau zenak egingandako agiri bat aurkitu eta kopia ateratzeko eraman ziezaion. Martin Otxoa Artazubiagakoak eta Joan Fernandez Dornutegikoa zumaiarrak Santxa Migelez Atxagakoarekin Arrazubiko ondasunen gozamenaz egingandako kontratuaren agiria zen. Lau egun geroago aurkeztu zion korrejidoreordeari kontratua Joan Martinez Amilibikoa eskribauak.

Bitartean Valladoliden alde bakoitzeko prokuradoreak bere eskabideak egin zituen. Anton Orok testigantzak jasotzeko epea luza zezatela eskatu zien epaileei.

- 1517-V-15ean Valladolidtik erreginaren eta seme erregearen gutuna bidali zuten. Martin Otxoa Artazubiagakoak Joan Ruiz eta Joan Lopez Arteagakoa anaiekin zuen auzian, azken hauei beren lekukoei testigantzak hartzeko era zehaztu zieten. Alde bakoitzak bere eskribaua izendatuta, biak batera zirela hartuko zizkieten lekukoei aitortpenak.

- 1517-VI-20an, Orion, Kristobal Aranburu alkatearen aurrean Joan Ruiz eta Joan Lopez anaien izenean Antonio Atxagak Joan Martinez Mañarizelaikoa eskribaua aurkeztu zuen. Baita lekukoei egin beharreko galderak ere. Zortzi galdera ziren guztira.

Martin Otxoa Artazubiagakoak eta Joan Fernandez Dornutegikoa Santxa Migelezekin kontratua egin zuten 1505. urteko martxoan, eta urtero 55 kintal burdina eta beste zenbait gauza Santxari emateko obligazioa hartu zuten. Santxa Migelezek, ordainetan, Arrazubiko ondasunen erdiaren gozamina agindu zien. Harrezkero gertaturikoaz ziren galderak. Gaia-aren garapena, besteak beste, honako agiri hauetan eman dugu: [XVI. m. (12) 7], [XVI. m. (13) 9], [XVI. m. (14) 3], [XVI. m. (17) 5] eta [XVI. m. (16) 56] agirietan.

Antonio Atxagak lekuko hauek aurkeztu zituen: Santxa Migelez Atxagakoa, Maria Ruiz Arrazubikoa alaba (Joan Ruiz eta Joan Lopez Arteagakoaren ama) eta Joan Fernandez Olaberrikoa, hirurak ere aiarrak. Zin egin zuten egia aitortuko zutela.

Ondoren Martin Otxoa Artazubiagakoa zestoarra aurkeztu zen bere eskribau Migel Gonzalez Seguro-lakoarekin, lekukoei testigantzak Joan Martinez Mañarizelaikoarekin har ziezazkien.

- 1517-VI-23an, Aiako Ierroako plazan, Domingo Gonzalez Seguro-lakoa batxiler eta alkateordearen au-

rrean, Joan Ruiz Arteagakoa aipatutako bi eskribauekin azaldu zen. Lekuko gisa Joan Zarautz, Aiako erretoea aurkeztu zuen.

- 1517-VII-4an, Aiako Ierroako plazan, alkateordearen aurrean Joan Rruizek Martin Lasarte usurbildarra aurkeztu zuen lekuko gisa. Zin egin zuen egia aitortuko zuela.

Ondoren Joan Fernandez Olaberrikoa lekukoak erantzun zien galderei. 52 urte zituen eta Maria Ruiz Arrazubikoaren ahizparen senarra zen, Santxa Migelezen suhia. Gero Martin Gartzia Ganboakoak, Aiako eskribauak, bere aitortpena egin zuen. 35 urte zituen eta Joan Ruiz eta Joan Lopez anaiaren urruneko senide zen.

Jarraian Santxa Migelez Atxagakoaren txanda izan zen. 65 urte zituen. Hark egindako eskriturek ziotena aipatu zuen. Hurrengo Santxaren alaba Maria Ruiz Arrazubikoari egokitu zitzaion erantzutea. 38 urte zituen, eta Joan Lopez eta Joan Ruizen ama zen. Gero Joan Zarautzek hitz egin zuen. 43 urte zituen Aiako erretoreak. Santxa Migelezek Martin Otxoarekin zuen kontratua deuseztatzen eta Maria Ruiz alabarekin kontratua egiten arbitro epaile gisa parte hartu zuen. Martin Lasarte usurbildarra ere arbitro izan zen. 42 urte zituen eta Maria Ruizen lehengusu propioa zen.

- 1517-VII-14an, Azkoitian, bertako alkatearen eta aipatutako bi eskribauen aurrean Joan Fernandez Dornutegikoa lekuko gisa aurkeztu zuen Joan Ruiz Arteagakoa. Bere garaian bi anaia adingabeen tutoreen fidatzaile izan zen Martin Otxoa Artazubiagakoarekin batera. 60 urte zituen. Bere emaztea Joan Ruiz eta Joan Lopezen aita zenaren arreba zen (ikus [XVI. m. (17) 13] agiria).

Zestoan 1517. urtean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Aizarnako parrokiako eliztar hauek elkar-tu ziren: Martin Gartzia Lasaokoa, Martin Fernandez Edarritzagakoa, Joan Lopez Zelaikoa, Joan Lizaso ("Suhi" goitzenekoa), Martin Legarda, Tomas Egaña, Joanes Gebara apaiza, Joanes Ipintza apaiza, Kris-



5.4. irudia. Orioko San Nikolas kalea.

tobal Ezenarro, Pedro Askatsua, Pedro Egaña, Joan Agirre, Martin Perez Iribarregoia, Martin Egaña, Martin Kortazar, Pedro Aizarnatea, Joan Arbestain, Martin Otxoa Gorosarikoa, Joango Olaberria, Joan Egaña, Joan Arano, Martin Zelaia eta Joan Lizaso Ormaetxekoa.

Joanes Indo apaizak Gipuzkoako artzapezarengana joateko deiak egin zizkien Joan Lizaso "Suhi" deituari, Joan Lizaso Ormaetxekoari eta Martin Zelaiari. Auzia elizako kapilautza eta kofradiako diruengatik zen. Ondorioz, Aizarnako eliztarrek prokuradore-ahalordea eman zieten Joan Otxoa Artazubiagakoa apaizari eta Joan Lizaso Ormaetxekoari, edozein auzitegitan haien ordezkari izan zitezten (ikus [XVI. m. (17) 11] agiria).

- 1517-V-24an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martoanez Sastarrain (orduan Debako



5.5. irudia. Aizarnako Egagoikoa.

partekoa) azaldu zen. Martoanezek Zestoako Sebastian Artazubiagari 100 kintal burdina zor zizkion, eta fida-tzaile hauek ziren: Domingo Lizarrarats, Pedro Baltzola, Joan Akertza, Martin Fernandez Edarritzagakoa, Joan Martinez Ibañetakoa eta Martin Artzubiaga.

Zorra ordaintzeko epea igaro zelako, Martoanez Sastarrainek Liliko burdinolan zeuzkan 340 karga ikatz eskaini zituen. Zor osoa osatu arte falta zena ordaintzeko konpromisoa hartu zuen Sastarraingoak. Lekuko hauek izan ziren: Joan Artiga, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Joan Artazubiaga (ikus [XVI. m. (17) 23] agiria).

- 1517-VI-4an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Otxoa Artazubiagakoa aita aurkeztu zen. Zumaiako Joan Martinez Arteagakoak, hil zenean, kontu-liburua utzi omen zuen, zeina Sizi-liako Trapani-ko biztanle zen Joan Berrasoeta ontzi-maisua zenak eduki baitzuen. Joan Martinez hil zenean inbentarioan mila dukat eta beste zenbait ondasun azaldu omen ziren. Kopuru haiek bermatzeko Martin Otxoak, Joan Ibañez Garratzakoak, San Joan Migelz Ganboakoak eta Joan Fernandez Dornutegikoak fidantza eman zuten Joan Martinez Arteagakoaren ondorengoen alde.

Martin Otxoak eta lagunek, ordea, auzia izan zuten Kantzelaritzan Joan Martinez zenaren ondorengoekin, eta kontuen berri eman behar zuten Martin Otxoak eta lagunek. Horregatik Martin Otxoak ahalordea eman zien Zumaiako Joan Martinez Ganboakoari eta Joan Lopez Oriokoa pilotuari Joan Berrosaeta zenaren kontu-liburua erabil zezaten eta handik eskriturak at-
ra zitzaten. Mila dukatak noiz eta nori eman zizkioten aterako zuten handik.

Ahalorde-agirian lekuko Zestoako Joan Artiga, Martin Zuube eta Joan Akertza izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 27] agiria).

- 1517-VI-17an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Otxoa Artazubiagakoa zestoarra eta Joan Errekondo "Txangoste" elkartu ziren. Joan Errekondok ordura arte Martin Otxoari harreman guztie-tan egindako zorra ordaindu egin zion. Ondorioz, Mar-tin Otxoak ordainagiria eman zion. Lekuko Joan Perez Arretzekoa eta Martin Artiga zestoarrak izan ziren.

Egun berean Joan Errekondok agiri bidez onar-tu egin zuen Aiako Joan Izekia...rengandik? urrezko bost dukat jaso zituela, Zestoako Martin Otxoari ordaintzeko (ikus [XVI. m. (17) 29] agiria).

- 1517-VII-18an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Otxoa Artazubiagakoa aita aurkeztu zen. Zumaiako Joan Fernandez Dornutegikoak 45 kintal burdina zor zizkion, eta ordaintzen ez zizkiolako kartzelan zegoen. Martin Otxoaren anaia Sebastian Artazubiagak eskatu egin zion Joan Fernandez hiru hilabeterako aska zezala. Horretarako Joan Fernandezek fidatzaileak emango zituen. Hiru hilabeteren buruan fidatzaileek zorra ordaintzen ez baldin bazuten, Joan Fernandez kartzelara itzuliko zen.

Bezperan, uztailaren 17an, atera zen zumaiarra kartzelatik. Fidatzaile Joan Lopez Etxanizkoa, Joan Esnal eta Domingo Dornutegi izan ziren. Sebastian Artazubiaga anaiak eta seme Blas Artazubiagak agiria sinatu zuten Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauaren aurrean preso askatzeko baldintzak zehaztuz. Martin Otxoak ontzat eman zuen agiri hura.

Lekuko Zestoako Joan Akoa, Martin Ipintza eta Martin Zuube izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 33] agiria).

- 1517-VIII-7an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Joango Artiga azaldu zen. Martin Otxoa Artazubiagakoaren emaztea zen, eta senarraren baimena zuen Gontzalo Soroa usurbildarra-

ri ordainagiria emateko. Burdinolako hauspoengatik eta beste zenbait gairengatik harremanak izan zituzten, baina egun hartan kontuak egin eta zorrak garbitu zituen usurbildarrak, Martin Otxoari ordainduta. Ondorioz, Maria Joango Artigak (Blas Artazubiagaren amak) Gontzalo Soroari ordainagiria eman zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Pedro Garratza eta Matxino Ipintza (ikus [XVI. m. (17) 36] agiria).

- 1517-VIII-10ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Martin Enparan eta Sebastian Artazubiaga elkartu ziren. Sebastianek Martini zaldi gorri-beltza, zamaria, saldu zion urrezko zortzi dukatean. Doi-doi urtebete barru ordainduko zion Martinek Sebastiani zorra.

Salerosketa-agirian lekuko Joan Lizarrarats, Joan Amezketa eta Martin Gabiria zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 38] agiria).

- 1517-X-7an, Zestoako Blas Artazubiaga eskribauak agiri bat egin zuen Azpeitian. Pedro Ondarra azpeitiarrak herri bereko Domingo Zabalagari mandar arrea saldu zion urrezko hamar dukatean. Domingok urtebete barru ordainduko zion zorra Pedrori. Le-

5.6. irudia. Zestoako Artiga edo Artia (desagertua).



kuko Joan Perez Antxietakoa, Joan Azpuru eta Martin Errekarte azpeitiarrak izan ziren (ikus [XV. m. (17) 48] agiria).

5.3. Joan Martinez Amilibikoaren kontratuak

- 1517-VIII-24an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Martinez Amilibikoa eskribaua eta Zarauzko Joan Perez Arrazubikoa elkar-tu ziren. Joan Martinezek Zarautzen Iñurritza edo Presaburu izeneko baserria zeukan, eta Joan Perezzi zazpi urterako errentan eman zion.

Joan Perez maizterrak baserriagatik eta lurrengatik urtero abuztuko Andre Mariaren egunean 12 florin ordainduko zizkion. Dena den, Joan Perezek 1517. urteko errenta zor zion nagusiari, eta 1518ko abuztuan bi urtekoa ordaintzekotan geratu zen. Bestalde, Joan Martinez jabeak Iñurritzan behi-aziendako 14 buru zituen bereak. Haien herena eman zion Joan Perez maizterrari 77 florinean. Kopuru haren erdia urtebete barru ordainduko zion, eta beste erdia bi urtebete barru. Ganadu hura maizterrak gobernatuko zuen, eta bi heren nagusiarentzat izango ziren. Maizterrak beste ganadurik ez zuen edukiko baserrian.

Horrez gain, Joan Martinez nagusiak etxeak behar zuen teila emango zion Zarautzen maizterrari. Maizterrak, ordea, Eguberrietan bi kapoi emango zizkion Zestoan nagusiari. Baserria eta ondasunak Joan Martinez nagusiarentzat hipotekatuta geratu ziren, maizterrak zor osoa ordaintzen zuen arte.

Errentamendu-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Legarda, Pedro Garratza eta Joan Otxoa Artazubiagakoa (ikus [XVI. m. (17) 41] agiria).

- 1517-X-9an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Martinez Amilibikoa eskribaua eta Azpeitiko Joan Arraio, bere emaztearekin, azaldu ziren. Joan Arraiok Joan Martinez Amilibikoaren aita Joan Ibañez Amilibikoa zenari 60 florineko zorra egin zion (1 florin = 100 sos zuri). Joan

Martinez semeak zorreratik Joan Arraioi ondasunak exekutatu egin zizkion.

Ondorioz, Arraio azpeitiarrak 67 florin eta erdi ordaindu zizkion Joan Martinez: 60 florin zorreratik eta 7 florin eta erdi auzi-gastuengatik. Agirian lekuko Pedro Oñatz azpeitiarra, eta Blas Lasao eta Martin Artzuriaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 49] agiria).

5.4. Martin Ondalderen eta Joan Aizarnaren agiriak

- 1517-VIII-31n, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ondaldek testamentua egin zuen. Gaztainondo batetik erorita zaurituta zegoen. Aizarnako elizan hilobira zezatela agindu zuen. Han egingo zizkieten ohiko hiletak eta urtebetetzeak. Joan Gebara apaizak 30 meza eta Joan Otxoa Artazubiagakoa beste 30 emango zituen haren arimaren alde.

Zenbait elizarentzat limosna utzi zuen: Guadalupeko Andre Mariari (Gaztelako bi erreal), gatibu kristauak askatzeko (6 txanpon), Santa Engraziari (argizaria eta bi txanpon), Urdanetako San Martini, Aizarnazabalgo elizari (2 txanpon), Aizarnako elizari (6 txanpon) eta Zestoako elizari (2 txanpon).

Ondoren Martin Ondalde zestoarrak bere zorren zerrenda egin zuen: Joan Beltran Iraetari (ia 16 kintal burdina, dukat bat eta anega bat olo), Domenja arrebari (3 dukat), Santxa arrebari (10 txanpon), Joan Perez Berrasoetakoari (dukata eta 8 txanpon), Domenja Errezustari (16 txanpon), Maria Beltran Urbietari (160 marai), Fernando Arreizari (dukata eta 2 txanpon), Martin Perez Kortazarkoari (3 dukat), "Txangilori" (dukata), Maria Joango Ausoroetxea arrebari, Joan Lizasori, Pedro Egañari, Joan Etxaberi, Blas Lasao jostunari, Joan Zuube mazolariari, Joan Akertza jostunari, eta beste hainbati. Argi eta garbi ikusten da Martin Ondaldek zorra ugari utzi zuela.

Bere seme-alabetan Joan semea aukeratu zuen Ondaldeko oinordeko izan zedin. Testamentu-betearazle

5.7. irudia. Zestoako Ondalde baserria.



Maria Ortiz Ondaldekkoa emaztea, Joan Beltran Iraeta eta Fernando Olazabal medikua izango ziren. Testamentuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Amilibia, Joan Arreitza, Joan Igartza eta Fernando Olazabal (ikus [XVI. m. (17) 43] agiria).

- 1517-IX-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Aizarna itsas pilotu zestoarra, Martin Zandategi azpeitiarra eta Marina Gaintza debarra elkartu ziren. Marina Pedro Zelaiaran zenaren ama zen.

Pedro Zelaiaran 22 bat urte lehenago, 1495. urte inguruan, itsasoan ibili zen Joan Aizarnarekin batera Napoliko gerran, Domingo Arrona zestoarraren itsasontzian. Orduan Pedro zenak urrezko 23 dukat eta 200 marai irabazi zituen, eta diru haiek Joan Aizarnak eduki zituen. Joan pilotuak 1500. urte inguruan, orduan Pedro Zelaiaran hila zelako, diru haiek Marina Gaintzari eta Martin Zandategiri eman zizkien (Martini 13 dukat eta Marinari 10 dukat eta 200 marai). Ordainketa haren eskritura Joan Aizarnak ezin zuen aurkitu, eta, ondorioz, Martin eta Marinak eskribau aurrean aitortu zuten diru haiek bere garaian jaso zituztela.

Onespen-agiri hartan lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Martin Zuube, Tomas Egaña eta Joango Artazubiaga.

Jarraian, leku berean, Martin Zandategik eta Marina Gaintzak eskritura egin zuten. Joan Aizarnak Marinari ordaindu zizkion 23 dukat eta 200 maraiak. Marinak Martini handik 13 dukat eman zizkion. Martinek Pedro Zelaiarani 6 dukat lantzetarako haga eta burdinatan eman zizkion, eta gainerako 7 dukatak Pedro hil zenean hiletak eta urteurrenak ordaintzeko erabili zituzten. Marinak 10 dukat eta 200 marai Indoko etxean erabili zituen (ikus [XVI. m. (17) 44] agiria).

- 1517-IX-20an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Aizarna itsas pilotua eta Domingo Arretxe hargina elkartu ziren. Joanek eta Domingok auzia zuten Zestoako alkateorde Sebastian Artazubiagaren aurrean lursail bateko pasabideaz eta beste zenbait desadostasunez. Arazoak saihestearren, Zestoako Martin Zubiaurre eta Joan Erretzabal arbitro epaile izendatu zituzten. Epaia emateko biak ados jartzen ez baziren, Martin Etxenagusia eta Martin Otxoa Artazubiagakoa ere har zitzaketan arbitro gisa, eta arbitro gehienek hartutako erabakia denek beteko



5.8. irudia. Aizarnako bista.

zuten. Joan Perez Arretzekoa eta Domingo Arretxe “Amezqueta” ere han ziren orduan.

Arbitroek epaia 10 egunen buruan emango zuten, baina, behar izanez gero, horretarako epea beste 10 egunez luzatzeko aukera izango zuten. Domingok eta Joanez zin egin zuten. Lekuko Pedro Garratza, Pedro Saez Errezustakoa, Martin Azpiazu eta Bartolome Artzubiaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 45] agiria).

- 1517-X-4an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ondalde, Joan Arreitza hauspagina eta Joan Otxoa Gorosarikoa zestoarrak elkartu ziren. Lehen biek beren buruak behartu egin zituzten Eguberri egunerako Beduako errenterian sei kintal burdina ordaintzera. Joan Otxoak emanda lehendik jasoak zituzten Martin eta Joanez kintal haiek.

Jarraian, leku berean, Joan Arreizak agiria egin eta konpromisoa hartu zuen Martin Ondalde obligazio hartatik onik aterako zuela; izan ere sei kintalen zorra Joan Arreizarena baitzen. Lekuko Joan Urbieta, Joan Amilibia eta Martin Zuube zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 47] agiria).

5.5. Blas Artazubiaga eskribauak egindako hainbat agiri

- 1517-I-11n, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrera Zestoako Maria Fernandez Etxeberrikoa azaldu zen. Ahalordea eman zien, Gipuzkoako korrejimenduan haren prokuradore izan zitezten, Joan Martinez Untzetakoari eta Antonio Atxagari. Han izango zituen auzietan ordezkatu zuten.

Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Joan Perez Arretzekoa eta Joan Fernandez Arreizakoa (ikus [XVI. m. (17) 4] agiria).

- 1517-III-22an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Bekolako Jofre Ibañez Altzolaraskoa eta Blas Lasao elkartu ziren. Zestoako Joan Martinez Amilibikoa alkateordeak kondenatu zuelako, Joan Lizasok Jofreri bi kintal burdina eta auzi-gastuak zor zizkion. Jofrek Blas Lasori zor hura kobratzeko eskubide eta ahalordea eman zion.

Agirian lekuko Joan Ezuria, Martin Indo eta Joango Olaberria izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 7] agiria).

5.9. irudia. Aizarnako Apategi baserria.



- 1517-III-24an, Azpeitian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Pedro Irigoien azpeitiarra eta Arroako Joan Errementari eta Martin Diaz Ermukoa elkartu ziren. Joan Errementari, Arroako olako jabea zen.

Bi arroarrek azpeitiarrarekin izandako harremanen kontuak garbitu zituzten. Pedro Irigoienek beste biei ordainagiria eman zien, eta ordura arteko zor guztiak kitaturik geratu ziren. Lekuko Sebastian Artazubiaga eta Tomas Egaña zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 8] agiria).

- 1517-IV-1ean, Zestoan, Domingo Arrona alkatearen ordezkoko Joan Martinez Amilibikoaren eta Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Maria San Joan Apategi aurkeztu zen. Ondoan Fernando Etxeberria seme adingabea zuen. Maria San Joanez zioenez, zortzi bat urte lehenago Fernando Etxeberria (Fernando gaztetxoaren aita) hil egin zen. Fernando semeak 14 urte baino gutxiago zituen, eta tutorea behar zuen.

Joan Martinez alkateordeak, bere informazioak lortuta, Maria San Joan semearen odolezko ama zela erabaki zuen. Alkateordeak amari galdetu zion ea

umearen tutore eta administratzaile izan nahi zuten. Maria San Joanez baiezkoa erantzun zion. Orduan Joan Martinezek ahalordea eman zion amari, eta amak zin egin zuen semearen pertsona eta ondasunak egoki kudeatuko zituela.

Maria San Joan Apategik fidatzailetzat Martin Ondalde eta Pedro Egaña zestoarrak aurkeztu zituen. Bi fidatzaileek hantxe onartu zuten Fernando Etxeberria adingabeari laguntzea. Maria San Joan amak, berriz, konpromisoa hartu zuen bi fidatzaileak obligazio hartatik onik ateratzeko. Agiri hartan lekuko, hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Arretzekoa, Joan Perez Akoakoa eta Martin Perez Lizarraraskoa (ikus [XVI. m. (17) 9] agiria).

- 1517-IV-1ean, Zestoan, Domingo Arrona alkatearen ordezkoko Joan Martinez Amilibikoaren eta Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Grazia Migelez Etxabekoa aurkeztu zen. Ondoan Martin Etxeberria seme adingabea zuen. Grazia Migelezek zioenez, zortzi bat urte lehenago Fernando Etxeberria (Martin gaztetxoaren aita) hil egin zen. Fernando semeak 14 urte baino gutxiago zituen, eta tutorea behar zuen.

Joan Martinez alkateordeak, bere informazioak lortuta, Grazia Migelez semearen odolezko ama zela erabaki zuen. Alkateordeak amari galdetu zion ea umearen tutore eta administratzaile izan nahi zuen. Grazia Migelezek baiezkoa erantzun zion. Orduan Joan Martinezek ahalordea eman zion amari, eta amak zin egin zuen semearen pertsona eta ondasunak egoki kudeatuko zituela.

Maria Grazia Migelez Etxabekoak fidatzailetzat Martin Ondalde eta Pedro Egaña zestoarrak aurkeztu zituen. Bi fidatzaileek hantxe onartu zuten Martin Etxeberria adingabeari laguntzea. Grazia Migelez amak, berriz, konpromisoa hartu zuen bi fidatzaileak obligazio hartatik onik ateratzeko. Agiri hartan lekuko, hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Arretzekoa, Joan Perez Akoakoa eta Martin Perez Lizarraraskoa (kus [XVI. m. (17) 10] agiria).

- 1517-IV-5ean, Aizarnako plazan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria San Joan Apategi eta Maria Ruiz Etxeberrikoa elkartu ziren. Maria San Joan Fernando Etxeberria adingabearen ama eta tutore zen. Hark zioenez, Ana Etxeberriak (Maria Ruiz Etxeberrikoaren ama zenak) bere testamentuan 10 dukat utzi zizkion Fernando semeari, eta haiexek eskatu zizkion. Ez ematekotan, auzitara jo beharko zuela jakinarazi zion.

Maria Ruiz Etxeberrikoak eskabide-agiriaren kopia eskatu zuen, eta erantzuna bere garaian emango zuela aditzera eman zion Maria San Joani.

Apirilaren 15ean, Zestoan, Maria San Joan Apategi Blas Artazubiaga eskribauarengana joan zen. Eskabide-agiria eskatu zion, zeren eta Maria Ruiz Etxeberrikoak ez baitzion ezer erantzun. Lekuko Joan Akertza gaztea eta Martin Zuube zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 13] agiria).

- 1517-IV-9an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria San Joan Apategi eta Maria Perez Lizarraraskoa eta Blas Lasao senarra aurkeztu ziren. Maria Perezek lehenbizi senarraren baimena

lortu zuen ahalordea prokuradoreei emateko.

Maria Perezek zioenez, Maria Fernandez Ipinztakoa ama hil zitzaionean, umea zen. Hala ere, oinordeko bakar eta unibertsal geratu zen. Herentziaz zegozkion ondasunak zenbait gizon eta emakumeren esku geratu omen ziren, eta bereganatu egin nahi zituen.

Maria Perezek ahalordea eman zien Donostiako Kristobal Agirre zilarginari, Blasiori, Pero Lopez Ibaizabalgoari eta Amado Otxoa Olazabalgoari, hango ofizialaren aurrean eta edozein auzitegitan prokuradore izan zitezten. Lekuko Zestoako Joan Perez Arretzekoa, Martin Zuube eta Domingo Arretxe izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 14] agiria).

- 1517-IV-21ean, Zestoan, Tomas Egañak konpromisoa hartu zuen arreba Graziari Eguberri egunerako 32 dukat emateko. Bien aita zenak, Joan Lopez Zabalakoak, Pedro Aizarnatearengandik eta Martin Otxoarengandik bost dukat kobratzeko zeuzkan, eta haiiek Graziarentzat izango ziren. Aita zenaren testamentutik at zorren bat azaltzen baldin bazen, 32 dukat haietatik ordaindu beharko zen.

Lekuko Joan Olazabal, Martin Legarda eta Martin Fernandez izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 15] agiria).

- 1517-V-24an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Maria Fernandez Etxeberrikoa eta Getariako Frantzisko Arrona elkartu ziren. Maria Fernandezek lehenago Frantziskoren ama Maria Lopez Olazabalgoari maileguz 6 dukat emanak zizkion, baina ez zizkion itzultzen. Ondorioz, auzitara eraman eta Maria Lopez getariarrari Joan San Pedro merioordeak barrika bat ardo eta upel bat sagardo bahitu egin zizkion.

Maria Lopezek egun hartan, ordea, Frantzisko Arrona semea bidali zion Zestoara 3 dukatekin. Beraz, zorraren erdia ordaindu zion Maria Fernandezi. Aipatutako barrika eta upelari bahitura kentzea onartu zuen Maria zestoarrak, baina hurrengo iraileko San

5.10. irudia. Aizarnako Etxeberri.



Migel eguna arteko epean zorraren beste 3 dukatak eman egin beharko zizkioten.

Agirian lekuko Getariako Joan Martinez Amilibikoa eta Zestoako Martin Gabiria izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 22] agiria).

- 1517-VI-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Martin Etorra, Katalina emaztea eta Domingo Artiga elkartu ziren. Sei urterako tratua egin zuten, Etorragaraikoan 20 behi eta 10 txerri erdi bana hazteko. Senar-emazteek Domingori 236 florin eta 82 sos zuri zor zizkioten. Ganaduen irabazietan zegokien erditik ordainduko zioten zorra Martinek eta emazteak Domingori.

Txerriak ezkurretara bidali behar zirenean, kostua erdi bana ordainduko zuten, eta Domingok urtero anega bat gari emango zuen txerrizainarentzat. Kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Garratza, Joan Akoa eta Joan Urbieta (ikus [XVI. m. (17) 26] agiria).

- 1517-VI-26an, Arroako Zabaliaerrekan (orduan Debako partea zen) Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Migel Zugasti eta Martin Ibarro-

la aurkeztu ziren. Migel Zugastik zioenez, Azpeitiko Pedro Irigoieni 20 ohol eta sagasti bat zegozkion han, eta haien eskubideak Migel Zugastik zeuzkan. Orduan Martin Ibarrolak sei dukat eta 500 maraitan erosi zizkion. Salerosketan lekuko izan ziren Debako Iñigo Ruiz apaiza, Domingo Areiztondo eta Paskual Erkisketa, eta Zestoako Joango Artazubiaga.

Ondoren, lehen Martin Lizaolarenak izan ziren zur eta sagasti haietaz jabetu zen Martin Ibarrola. Migel Zugastik sarrarazi zuen sagastira, eta Martinek oholei aizkoraz markak egin zizkien eta sagastiko adar batzuk moztu zituen jabea zela adierazteko (ikus [XVI. m. (17) 31] agiria).

- 1517-VII-13an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Martin Fernandez Edarritzagakoa aurkeztu zen. Ahalordea eman zien Zestoako Martin Otxoa Artazubiagakoari eta korrejimenduko prokuradore Antonio Atxaga, Joan Martinez Untzetakoa eta Pedro Ubaiarkoari, Zumaiako Joan Amilibia eta Beltran Enbilengandik 77 libra kobre jaso zitza- ten; izan ere, Joan Amilibiak idatziz aitorturik zeukan kobre hura Martin Fernandezi zor ziola. Behar izanez gero, auzitara joko zuten prokuradoreek.



5.11. irudia. Zestoako Sastarrain baserri-
eskola.

Ahalordean lekuko Zestoako Jofre Ibañez Altzolaraskoa, Joan Aizarna pilotua eta Joan “Zuria” izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 32] agiria).

- 1517-VII-19an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Fernandez Edarritzagakoa eta Joan Otxoa Gorosarikoa azaldu ziren. Joan Otxoak Martin Fernandezi urrezko 30 dukat eman zizkion, eta honek bere burua eta ondasunak behartu zituen zor hura hurrengo Eguberritarako ordaintzeko.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Martin Etxeberria, Joan Irureta, Pedro Egaña gaztea eta Joan Perez Arretzekoa, Aiako eta Zestoako biztanleak (ikus [XVI. m. (17) 34] agiria).

- 1517-VIII-3an, Zumaian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Garzia Arteagakoa zumaia-
rra eta Sebastian Artazubiaga zestoarra elkartu zien. Zestoako Martin Fernandez Edarritzagakoa Martin Gartzia-
ri 50 kintal burdina barratan zor zizkion, eta Gipuzkoako korrejidorearen aginduz zestoarrari on-
dasunak exekutatu egin zizkieten. Orduan Sebastian Artazubiaga Martin Fernandezen fidatzaile gisa azal-
du zen, eta Martin Gartzia zumaia-
rrari zorra Beduako errenterian burdinazko pletinak emanda ordaindu zion.

Ondorioz, Martin Gartzia eskubide guztiak eman zizkion Sebastiani 50 kintal burdinak Martin Fernandez Edarritzagakoa kobratzeko.

Agirian lekuko zumaia-
r hauek izan ziren: Kristo-
bal Gartzia Azkuekoa eskribaua, Martin Fernandez Dornutegikoa eta Domingo Olalgi (ikus [XVI. m. (17) 35] agiria).

- 1517-VIII-10ean, Zestean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Martoanez Sastarrain eta Zestoako Lope Potzueta elkartu ziren. Lopek Martoanezi zaldi gorri-beltza, zamaria, saldu zion urrezko hamar dukatean. Lau dukat Domu Santu egunean ordainduko zizkion Martoanezek, eta gainerako sei dukatak hurrengo Pazko garizumakoan.

Salerosketa-agirian lekuko Martin Legarda, Joan Zuube eta Martin Zuube zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 39] agiria).

- 1517-VIII-17an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Aiako Joan Zinkunegi eta Zestoako Joan Otxoa Gorosarikoa elkartu ziren. Aiarrak zestoarrari 27 kintal eta erdi burdina emango zizkion Beduako errenterian hurrengo martxoko Andre

Mariaren egunerako. Joan Zinkunegik kintal haiek Ramus Gorosarri zestoarrari zor zizkion, eta Joan Otxoak aurreratu egin zizkion.

Lekuko Zestoako Pedro Iribarrena, Martin Fernandez Edarritzagakoa eta Joan Urbietta izan ziren.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Joan Zinkunegik Joan Otxoari behi-aziendako sei buru saldu zizkion: behi bat bere txahalarekin, beste behi bat bere zezenkoarekin, beste behi bat eta beste idi bat. Bedamako burdinolan utziko zizkion sei egun barru.

Ondoren, Ramus Gorosarrik 33 dukat jaso izanaren ordainagiria eman zion Joan Zinkunegiri (ikus [XVI. m. (17) 40] agiria).

- 1517-X-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Katalina Diaz Mirubikoa (Errodri-go Txiribogaren alarguna) eta Joan Perez Arretzekoa zestoarra elkartu ziren. Katalinak bere burua behartu egin zuen hurrengo Eguberri egunerako bi dukat eta 200 marai Joan Perezi ordaintzera. Zestoako ermandade-alkatearen aurrean izandako auzi-gastuengatik zor zion Katalinak kopuru hura.

Obligazio-agirian lekuko Zestoako Pedro Txiriboga eta Joan Zuube mazolaria, eta Debako Kristobal Goienetxea izan ziren (ikus [XVI. m. (17) 46] agiria).

- 1517-X-20an, Azpeitian, Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean zenbait hartzekodun azpeitiar elkartu ziren. Zestoako Martin Izarraga kanpoan zebilen, baina hartzekodunek dei egin zioten zorra geroratzeko aukera emango ziotelako.

- Joan Zelaiarani 23 dukat eta florin bat zor zizkion, baina ordaintzeko urtebeteko epea eman zion. Martinek, ordea, hurrengo San Andres egunerako itzuli egin beharko zuen.

- Martin Perez Erraztikoak 17 dukateko zorra ordaintzeko epea hurrengo Pazko garizumakotik bi urtera arte luzatu zion.

- Migel Isurolak zorra ordaintzeko lau urteko epea eman zion.

- Pedro Larrar jaunak zioenez, Martin bere anaia Joangoren 9 dukateko zorrean fidatzaile zen. Urte eta erdiko epea eman zion zorra ordaintzeko.

Agirian lekuko gisa Joan Zaratek sinatu zuen (ikus [XVI. m. (17) 50] agiria).

5.6. Maria Joango Ausoroetxearen auziaren amaiera, etab.

Zestoako Maria Joango Ausoroetxea Martin Indorekin Indo baserrira ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen: Martin, Maria eta Katalina. Alargundu eta gero Zestoako Fernando Olazabal medikuarekin ezkondu zen, baina Indora eramandako dotea berreskuratu nahi zuen. Horretarako auzia ipini zien bere seme-alabei Gipuzkoako korrejidorearen aurrean. Korrejidorearen epaiak zioenez, Mari Joangok Indora 115 kintal burdina, behia, bost ardi etab. eraman zituen. Hala ere, haiek berreskuratzeko Maria Joangok lehenbizi Martin Indo hil zenean han zeuden ondasunen inbentarioa aurkeztuko zuen. Ondasun haiek emandako etekina eta izan zituen gastuen kontuak aurkeztuko zituen. Gastatu zuena ikusita, gainerakoa dote gisa eramandakotik itzuli egingo zitzaion.

Auzia azkenean Valladolidko Kantzelaritzara iritsi eta epaia, korrejidorearena berretsiz, Maria Joangoren aldekoa izan zen (ikus [XVI. m. (14) 1] eta [XVI. m. (15) 1] agiriak).

Maria Joangoren Matxin, Maria Anton eta Katalina Indo seme-alaben prokuradoreak Kantzelaritzako epaiaren aurka egin zuen, baina epaileek, berrikuspen-mailan, 1517-IV-3an berretsi egin zuten lehen emandako epaia. Auzi-gastuak ere (647 marai) Indoko seme-alabek ordaindu beharko zituzten (ikus [XVI. m. (17) 12] agiria).

Auzi luzea izan zen, eta horren berri 1511. urteaz geroztiko albisteetan eman dugu (ikus 3.1.8.; 3.2.2.; 3.3.1.; 3.4.1. eta 3.5.1. atalak).



5.12. irudia. Zestoako Ausoroetxea baserria.

- 1517-IV-30ean, Valladolidtik, auziaren amaiera gisa errege-gutun betearazlea bidali zuten. Bertan prozesu osoaren laburpena eta emandako epaiak jakinarazten dira, hau da, guk aipatutako ataletan azaldutakoaren laburpena egiten du (ikus [XVI. m. (17) 21] agiria).

- 1517-XI-29an, bestalde, Zumaiako partean, Fernando Arreizaren Errezubiko etxearen ondoan, Joan Perez Arriolakoa (edo Arriola-Elorriagakoa) eskribau zumaiarraren aurrean Pedro Zumaia (edo Txiriboga) eta Santxa Ruiz Txiribogakoa elkartu ziren. Zumaiako Maria Ibañez Sasiolakoa Pedro Zumaiaren amaginarreba zen.

Pedrok eta Santxak aditzera eman zuten, Zumaiako Andres Perez Indanetakoa eta Joan Perez Elorriagakoa epaile arbitroek epaia eman zuten. Ondorioz, Pedrok eta ama Katalina Diaz Mirubikoak Maria Ibañezi urrezko 31 dukat eta 30 kintal burdina ordaindu behar zizkioten. Hori zela eta, Pedro Zumaiak eta (bere borondatez) Santxa Ruiz Txiribogakoa konpromisoa hartu zuten Domu Santu egunerako Maria Ibañezi Zumaian 31 dukat ordaintzeko eta Beduako, Oikiako edo Narruondoko erreterian 30 kintal burdina emateko.

Obligazio-agirian lekuko Joan Amilibia eta Grazia Etxabe zumaiarrak eta Alegiako Domingo Egia izan ziren (ikus [XVI. (17) 52] agiria).

5.7. Zestoako Kontzeju-etxeko agirien inbentarioa

- 1514-XI-2an, Zestoan Joan Martinez Amilibikoak zuen etxean, Zestoako Joan Perez Idiakaizkoa (Liliko jaun eta eskribaua) eta Azpeitiko Joan Akemendi eskribaua elkartu ziren. Azpeitiko eskribaua Martin Gartzia Lasaokoak ekarri zuen Aizarnako eliztarren izenean. Hiribilduko Kontzejuaren kutxan zeuden eskrituren inbentarioa egin nahi zuten.

Martin Gartzia Lasaokoa 1515. urtean izan zen alkate (iraileko San Migel eguna arte) eta haren ondoren Martin Otxoa Artazubiagakoa eta Domingo Arrona izan ziren, bakoitza urtebetez, San Migel egunetik San Migel egunera. Orduan, 1517-XI-2an, Domingo Artiga zegoen alkate. Egun hartan hauek zeuden elkartuta: Domingo Artiga alkatea, Joan Aizarna fiela, Hernando Olazabal probestuordea, Joan Martinez Amilibikoa zinegotzia, Migel Artzubiaga zinegotzia, Joan Martinez eta Joan Perez Idiakaizkoa gaztea (edo Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Joan Perez Idiakaizkoaren semea).

Domingo Artiga alkateak kutxako giltza eman zuen. Fielak zeukan beste giltza batekin kutxaren barruko kutxatxo ireki zuten, eta agiri hauek zeuden¹:

- Joan erregearen pribilegio bat, aro hispanikoaren 1421. urtekoa (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 6] agiria).

- Joan erregearen beste pribilegio bat, abokatuen gastuak kobratu ahal izateko emana (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 10] edo [XIV. m. 11] agiria).

- Joan erregearen beste pribilegio bat, aro hispanikoaren 1434. urtekoa, Joan Gonzalez Segurakoa eskribauak berretsia.

- Enrike erregearen pribilegio bat, 1392. urtekoa, Alfontso Fernandez Castrokoak berretsia (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 6] agiria).
- Zestoako Kontzejuak Otxoa Lopez Altzolaraskoa auzotar hartzeko ituna (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 8] agiria).
- Joan erregearen beste pribilegio bat, 1407. urtekoa, Joan Gonzalez Moralejakoak berretsia².
- Izarrizpeko jurisdikzioa banatzeko Zestoak Azpeitiarekin egindako eskritura (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 4] agiria).
- Fernando eta Isabel errege-erreginen pribilegio bat, 1427. urtekoa, lau orriko pergaminoa (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 6] agiria).
- Zestoak eta Azpeitiak Agireta eta Ariain? kudeatzeko ipini zuten isun-agiria (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 3] agiria).
- Getariako Kontzejuak Zestoakoarekin egindako eskritura, hiru eskribauk egina (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 6] agiria).
- Zestoako Kontzejuaren eta Martin Diaz Liliokoaren artean presari buruz egindako eskritura.
- Saiazkoak auzotar gisa hartzeko kontratua (agian *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 6] agiria).
- Kontzeju-etxeaz emandako gutun betearazlea (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 237] agiria).
- Etorrako saroiaren salerosketa-kontratua (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 6] agiria).
- Arbitroen epaia, Kontzejuak eta Joan Agirrek Kontzeju-etxeaz zuten auzian.
- Zestoako Kontzejuak Gorostiola eta Agiretako saroiak erosita Beltran Loiolari eta Martin Gartzia Antxietakoari emandako diruagatik ordainagiria (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 162] agiria).
- Apezpikuaren patronatua, pergaminoa.
- Beduako etxea Zestoako jurisdikziora sartzeko auzotar-gutuna.

5.13. irudia. Bedua.



- Aizarnako elizaren ondasunak saldu zituztenen aurkako oharra.

- Kontzejuaren mugarriztatzea, pergaminoa (agian *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 9] agiria).

- Errege-erreginek Kontzejuari patronatuaz egindako agiria.

- Aizarnako bikarioaren baimena, Zestoako eliza eraikitzeko.

- Enekosauztegiko lurrei buruzko konpromisoa.

- Agireta eta Gorostiagako (edo Gorostiolako) sarroien salmenta-agiria (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 127] agiria).

- Arrasateko ordainagiriak (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 19], [20], [21] eta [22] agiriak).

- Zestoako Kontzejuak Orreagarekin eta Zumaia-rekin egindako konpromisoa (agian *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XIV. m. 24] agiria).

- Erregeak eta erreginak alkabaletan egindako mesede-agiria.

- Zestoako bikario Esteban Aisoro izan zedin egindako aurkezpena.

- Probintziako alkabalei buruzko pribilegioa.

- Joan Martinez Zabalakoak egindako obligazio-agiria (*I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 185] agiria).

- Fernando maisuak (medikuak) emandako epaia.

- Bikarioak eta benefiziaduek, hauek egin beharreko zerbitzuaz, Kontzejuarekin egindako gutun zatitua.

- Patronatuari buruzko gutun betearazlea (ikus [XVI. m. (17) 51] agiria).

5.8. Aizarnazabalgo Joan Atristainen Joan Etxabe eta lagunen aurkako auzia

Aurreko urteetan Aizarnazabalgo Atristaingo ondasunei buruzko kudeaketaz auzi luzea zuen Joan Atristainek Joan Etxabe, Martin Enbil eta Martin Intxaurregiren aurka (ikus [XVI. m. (16) 10] agiria). 1517. urtean auziak jarraipena izan zuen Gipuzkoako korrejidoreordearen aurrean.

Lehenbizi Azpeitian, 1517-I-8an hasita, eta gero Tolosan segidan, alde bakoitzak berriz ere bere arrazoiak azaldu zizkion Luis Perez Palentziakoa korrejidoreordeari. Luis Perez lizentziatuak bere epaia eman zuen Tolosan. Joan Etxabe eta lagunak kondenatu egin zituen hurrengo 30 eguneko epearen barruan Joan Atristaini inbentario bidez Atristaingo ondasunen kontuak garbitzera. Gainera Joan Etxaberen aldeak auzi-gastu denak ordainduko zituen.

- 1517-VIII-17an, Tolosan, Joan Lopez Etxanizkoa prokuradoreak Joan Etxaberen izenean epaiaren aurkako idaztia aurkeztu zuen, eta gora jotzeko baimena eskatu zion korrejidoreordeari. Luis Perezek zioenez, hark emandako epaia zuzena zen, baina maila goragoko epailei zien begiruneagatik baimena eman egin zion Etxaberen aldeari auzia Valladolida eraman zezan (ikus [XVI. m. (17) 2] agiria).

5.9. Zumaiaiko Kontzejuak Aizarnazabal eta Oikiakoekin zuen auziaren jarraipena

Zumaiaiko Kontzejuak San Pedro elizarako apaizen izendapenetan Orreagakoekin izandako auzi-gastuen zati bat eta beste zenbait gastu Aizarnazabal eta Oikiako biztanleei ordainarazi egiten zien, eta aspalditik zuten desadostasuna. Aizarnazabalgoek eta Oikiakoek, ondorioz, auzia zuten Gipuzkoako korrejimenduan (ikus [XVI. m. (16) 26] agiria). Gogoan izan behar da arrazoi bertsuengatik Aizarnazabal eta Oikia 1470etik 1486. urtera arte, Zumaiaitik bananduta, Zestoako parte izan zirela.

- 1517-III-12an, Zumaiaiko elizaren sakristau, Lope Fernandez Zumaiaikoa alkate izanik, Kontze-

juak egindako gastuen zerrenda egiten ari zirela, Joan Esnal azaldu zen. Saiaz eta Oikiako prokuradore gisa San Pedro elizako gastuak ordaintzea ez zegokiera zioen. Alkatea ez zen iritzi berekoa. Gastuak guztira 36.214 maraikoak ziren, eta herena (12.071 marai) Aizarnazabal eta Oikiakoek ordainduko zuten.

- 1517-III-26an, Zumaian, Joan Esnal prokuradoreak Lope Fernandez Zumaiakoa alkateari ordainketatik auzian gora jotzeko baimena eskatu zion, eta alkateak eman egin zion. Hala ere, ordaintzen ez bazuen, kartzelara sartuko zuen prokuradorea.

- 1517-III-30ean, Zumaian, alkateak preso zeukan Aizarnazabal eta Oikiako Joan Esnal prokuradorea. Honek protesta-idaztia aurkeztu zion alkateari.

- 1517-III-31n, Azpeitian, Luis Perez Palentziakoa korrejidoreordearen aurrean Joan Lopez Etxanizkoa prokuradoreak Aizarnazabal eta Oikiako izenean, Zumaia Kontzejuari auzia ipini zion. Korrejidoreordeak agindua bidali zien Zumaia bi alkateei (Lope Fernandez eta Joan Migelez Askizukoari) auzitara aurkez zitezen.

- 1517-IV-1ean, Zumaian, alkateek idaztia egin zuten Saiaz eta Oikiakoek zergatik ordaindu behar zuten

azalduz. Zumaia Kontzejuaren prokuradore Joan Martinez Untzetakoa getariarra zen.

- 1517-IV-7an, Azpeitian, Zumaia Kontzejuaren prokuradoreak bere aldeko arrazoiak azaldu zizkion korrejidoreari. Aurkarien prokuradoreak, Joan Lopez Etxanizkoa, ere bere idaztia aurkeztu zuen. Korrejidoreordeak bi aldeei 9 eguneko epea eman zien bere lekuko testigantzak aurkez zituzaten. Joan Esnal kartzelatik atera egingo zuten, fidantzak ematen bazituen. Askatu zuten, azkenean, hilaren 24an.

- 1517-IV-27an, Donostian, korrejidoreordeak epaia eman zuen. Saiaz eta Oikiakoei Zumaia alkatearen aginduz bahituran hartu zizkieten gauzak ezin zitezuten enkantean saldu auzia amaitu arte. Zumaia Kontzejuak ez zegoela ados jakinarazi zion. Joan Esnal, berriz, Zumaia zenbait gastu ordaintzearen aurka azaldu zen, zeina berriz ere Zumaia alkateak preso hartu baitzuen.

- 1517-IV-29an, Errenterian, Luis Perez Palentziakoa korrejidoreordeak berretsi egin zituen bere aginduak.

- 1517-VI-10ean, Valladoliden, Gipuzkoako korrejidoreordeak emandako epaiaren aurkako apelazioa

5.14. irudia.
Aizarnazabalgo
Saiazko plazatxoa.



aurkeztu zuen Zumaiako Kontzejuaren prokuradoreak. Egun berean Kantzelaritzatik errege-gutuna bidali zieten Aizarnazabal eta Oikiakoei. Zumaiako Kontzejuaren izenean Anton Oro prokuradoreak aurkeztutako auzira joan behar zuten hurrengo 15 eguneko epean.

- 1517-VI-30ean, Azkoitian, Gipuzkoako korrejido-erordeak Zumaiako Kontzejuari zin egin eta galderei erantzuteko sei pertsona izenda zitzala agindu zion. Hurrengo hilaren 4an izendatu zituen Kontzejuak.

- 1517-VII-7an, Azkoitian, Saiaz eta Oikiako prokuradore Joan Lopez Etxanizkoak Zumaiako sei lekukoei egin beharreko galderak aurkeztu zituen korrejimenduan. 21 galdera ziren guztira, Saiaz eta Oikiakoen parrokia, lur eta ondasunei eta Zumaiako Kontzejuarekin zituzten harremani buruzkoak. Erantzunak lehenbizi hiru zumaiar hauek eman zituzten: Joan Fernandez Izetakoak, Martin Larrandik eta Joan Martinez Arteagakoak.

- 1517-VII-14an, Zumaian, galderei Zumaiako Martin Gartzia Arteagakoak eta Jofre Ibañez Sasio-lakoak erantzun zieten.

- 1517-VII-17an, Azkoitian, Luis Perez Palentziakoa korrejido-erordeak agindua bidali zion Azpeitiko Joan Martinez Ibarbiakoa eskribauari. Aizarnazabalgoben eta Oikiakoen ordezkari gisa, Zumaiako Kontzejuak izendaturiko eskribauarekin batera lekukoei testigantzak jasoko zizkien.

- 1517-VII-27an, Zumaian, Kontzejuak bere eskribau gisa Kristobal Gartzia Azkuekoa hautatu zuen, baina aurkariak ez zuten onartu, Zumaiakoa zelako. Getariako Beltran Untzetak egin zituen azkenean eskribau-lanak. Azkoitian, Aizarnazabal eta Oikiakoek aurkezturiko lekukoei egin beharreko 14 galdera aurkeztu zituzten.

- 1517-VIII-6an, Aizarnazabalen, hauek izan ziren galderei erantzundako lekukoak: Joan Indo (62 urteko apaiz zestoarra), Martin Goiburu (Saiazko bikarioa, 36 urtekoa), Joan Epelola (68 urteko oikiarra), Iñigo Dornutegi (56 urteko apaiza, San Migel Dornutegiko edo Artadiko elizako erretorea), Martin Fernandez Dornutegikoa (65 urtekoa), Andres Perez Indanetakoa (58 urtekoa, Zumaiako alkatea), Diego Perez Indanetakoa (43 urtekoa, Zumaiako alkatea), Joan



5.15. irudia. Zumaiako Artadiko San Migel.

Fernandez Dornutegikoa (60 urtekoa), Joan Miguelez Amezketakoa (56 urtekoa, Oikian bizi zena), Joan Esnal (saiaztarra, 44 urtekoa), Pedro Martinez Mantzizidorkoa (62 urteko saiaztarra), Domingo Narbazta (70 urteko saiaztarra), Joan Agirre (52 urteko oikiarra), Martin Perez Kortazarkoa (60 urteko zestoarra), Joan Gebara (Zestoa eta Aizarnako elizetako apaiza eta Urdanetako elizako bikarioa).

Lekukoen aitorpenak Joan Lopez Etxanizkoa prokuradoreak 1517-VIII-18an aurkeztu zizkion Luis Perez Palentziakoa korrejidoreordeari.

- 1517-VIII-19an, Tolosan, Gipuzkoako korrejimenduan, Joan Domingez Areitzagakoa prokuradorea Saiazkoen izenean kexu azaldu zen Zumaian behar ez ziren gastu batzuk (Orreagarekin zuten auzikoak, besteak beste) ordainarazi zizkielako. Korrejidoreordeak Zumaiako alkateei agindua bidali zien Saiazkoei eskribauak gastuen kopia eman ziezaien.

- 1517-VIII-25ean, Tolosan, Joan Lopez Etxanizkoak Saiaz eta Oikiako izenean Zumaiako Kontzejuaren gastu-banaketaren kopia erakutsi zien. Gastuak guztira 29.605 maraikoak ziren. Saiazkoek herena (9.890 marai) ordaindu behar zuten. Hain zuzen kopuru horren zati bat ez zuten ordaindu nahi Aizarnazabal eta Oikiakoek, haien ustez ez zegokielako.

- 1517-VIII-26an, Tolosan, Luis Perez Palentziakoa korrejidoreordeak epaia eman zuen. Saiazkoei Zumaiako Kontzejuaren zein gastu kobra ziezaieketen zehaztu zuen. Gainerakoa auzia amaitu arte ez zuten kobratuko. Zumaiakoen prokuradoreak, Antonio Atxagak, aurka eginez idaztia aurkeztu zuen.

- 1517-IX-3an, Tolosan, Joan Lopez Etxanizkoak korrejidoreordeak emandako epaiaren alde egin zuen.

- 1517-IX-11n, Zumaiako alkate izandako Lope Fernandez Zumaiakoak Saiaz eta Oikiakoei bahituran hartutako gauzen zerrenda aurkeztu zuen Tolosan Joan Lopez Etxanizkoa prokuradoreak.

- 1517-IX-24an, Tolosan, Gipuzkoako korrejidoreordeak bi aldeei 9 eguneko epea eman zien beren aldeko frogak aurkez zitzaten. Bi egun geroago Zumaiako Kontzejukoei Orreagakoekin egindako eskriturak aurkez zitzatela agindu zien.

- 1517-X-5ean, Tolosan, korrejidoreordeak Zumaiako Kontzejuari Saiaz eta Oikiakoei bahituran hartutako gauzak itzul zitzatela agindu zien.

- 1517-X-12an, Tolosan, korrejidoreordeak agindua eman zien Zumaiako Kontzejukoei, aurkeztu zituzten eskrituren kopia Saiazkoen esku utz zezaten.

5.16. irudia. Zumaiako itsasadarra.



Ondoren alde bakoitzak zenbait idazti aurkeztu zuen, bere aldeko arrazoiak azalduz, korrejidoreordearen aurrean.

- 1517-X-23an, Tolosan, korrejidoreordeak epaia eman zuen Zumaiako gastu-zerrendatik Saiazkoek zein atal ordaindu behar zituzten zehaztuz.

- 1517-XI-8an, Saiaz eta Oikiako lekukoei egin beharreko galderak zehaztu zituzten Zumaiako Kontzejukoek. 26 ziren guztira. Honako hauek izan ziren erantzun zuten lekukoak: Martin Etxabe, Joan Epelolla oikiarra, Pedro Martinez Mantzizidorkoa oikiarra, Joan Perez Mirubikoa (Saizko zinegotzia), Joan Etxabe, Joan Esnal eta Joan Amilibia.

- 1517-XII-17an, Azpeitian, Zumaiako Kontzejuaren prokuradore Pedro Ubaiarrek korrejidoreordeari 50 eguneko epea eskatu zion lekukoen testigantzak jasotzeko, eta Luis Perez lizentziatuak eman egin zion.

- 1517-XII-19an, Azpeititik korrejidoreordeak agindua bidali zion Getariako Beltran Untzeta eskribauari, Zumaiako Kontzejuaren izenean 50 eguneko epean lekukoen testigantzak jaso zitzaizkien. Saiaz eta Oikiakoek izendaturiko eskribauarekin batera hartuko zituzten lekukoen aitortpenak (ikus [XVI. m. (17) 6] agiria).

5.10. Gipuzkoako Batzarrak, Ahaide Nagusiak, igorpen-alkatea, etab.

1517. urtean urtarrilaren 15ean bildu ziren, Deban, lehen aldiz Probintziako Batzar Bereziak. Donostian domingotarren komentua eraikitzearen aurkako erabakia hartu zuten.

Urte bereko martxoan Usarragan bildu ziren bigarrenez Gipuzkoako Batzar Bereziak. Hamarrenak Antonio Atxagari ordez Martin Perez Segurakoari ordaintzea zen aztertutikoa gaia.

Maiatzaren 14an, berriz Azkoitiko Basarten ospatu ziren Batzar Bereziak, Luis Perez Palentziakoa korre-

jidoreordea buru zela. Probintziako Ordenantzen eta pribilegioen aurkako errege-gutunak obedituko zirela, baina ez zirela beteko, erabaki zuten³. Basarteko Batzar Berezi haietan Probintziako igorpen-alkatea Batzar Nagusi bakoitzean izendatzea erabaki zuten. Kargu horretan, beraz, alkateak sei hilabete egingo zituen. Igorpen-alkatea Behobia edo Pausuan egongo zen gabarra eta guzti, eta Probintziako inportazioak eta esportazioak kontrolatuko zituen. Armak, mandoak, zaldia eta esklaboak ezin ziren Probintziatik atera⁴.

Dena den, garai hartan esklabo beltzak Ameriketara eramateko gonbitea egin zion Bartolome de las Casas famatuak Karlos V.a enperadoreari, meategietan indigenen ordez lan egin zezaten⁵.

Batzar Nagusiak azaroaren 23an bildu ziren Getarian aipatutako korrejidoreordea bertan zela. Batzarretan ordura arte erabilitako sukaldetako bozketasistema aldatu egin nahi izan zuen talde batek, prokuradore bakoitzari boto bat emanaz. Hiribildu zaharren taldeak (Donostia, Tolosa, Segura, eta abarrek) lehen bezala sukalde kopuruaren arabera boto kopurua edukitzearen aldekoak ziren. Beste taldeak (Getaria, Azpeitia, Azkoitia, Arrasate eta abarrek) prokuradore bakoitzak boto bat edukitzea nahi zuten. Ahaide Nagusiak ziren sistema berriaren sustatzaileak, Joan Beltran IV.a Iraeta ahaide nagusia barne. Arazo hark hurrengo urteetan izan zuen jarraipena³.

Ordura arte erabilitako sisteman, hona hemen Gipuzkoako hiribildu batzuei zegozkien sukalde kopurua eta botoen proportzioa: Tolosari 366,5 sukalde eta botoen % 15,27, Donostiari 213,33 sukalde eta botoen % 9,14, Segurari 176 sukalde eta botoen % 7,54, Debari 85 sukalde eta botoen % 3,64, Zestoari 49 sukalde eta botoen % 2,10, Eibarri 30 sukalde eta botoen % 1,28, etab. Orio zen sukalde gutxienean (5) eta botoetan proportzio txikienean (% 0,21) zituena⁶. Aurrerantzean ere sukaldetako sistemak jarraitu zuten Gipuzkoako Batzarretan.

Getariako Batzar Nagusietan egindako gastu-banaketan hainbat pertsonari egindako gastuak ordain-

du zizkieten, eta horietako batzuk Joan Martinez La-saokoa Frantzisko Perez Idiakaizkoa eta Joan Marti-nez Amilibikoa izan ziren⁷.

1570-VI-10ean Madrilen Luis Perez Palentziakoa lizentziatua izendatu zuten Gipuzkoako Antso Marti-nez Leibakoa korrejidorearen ordezkotzat.

1517-VI-30ean Francisco Jimenez de Cisneros kardinalak Hernan Perez Igartzakoa izendatu zuen Irungo gotorlekuko teniente, nahiz eta Probintziak izendapen hura gogoko izan ez. Abuztuaren 6ko Bi-daniko Batzar Berezietan Probintziak bertako pertso-na bat izendatu behar zela erabaki zuen.

Urte hartan, azaroaren 23an, Valladoliden Zes-toako Kontzejuak salatu egin zuen Fortun Iraeta auzi-ihesi zebilelako³.

Beste zestoar batek, Esteban Akertza olagizonak, Segurola (Aiakoa, gure ustez) errentan hartua zuen urte hartan⁸. Urte hartan Italia aldean, Brindisi on-doko Lecce hirian eskribau zebilen Martin Domingo Idiakaitz, Joan Perez Lilikoaren idazkaria⁹.

Urte hartan, uztailaren 10ean, Karlos V.a erregeak Gipuzkoako Probintziari Gantetik Espainiara bidaia

egingo zuela jakinarazi zion³. Irailean itsasoratu zen Flandesko Vlissingen edo Flesinga-n, eta hamabi egun geroago heldu zen segizioarekin Asturiasko Vi-llaviciosara. Han, besteak beste, zezenketa antolatu zuten gertaera ospatzeko¹⁰.

Urte hartan, bestalde, otsailaren 17an Nafarroako Katalina erregina hil zen¹¹. Bizkaiko Durangon, be-rriz, urte hartan biztanle ugari hil zen izurriaren eragi-nez. Anboto inguruan gainera (Araba aldean, Otxan-dio, Aramaio eta Durangon), sorginkeriak indar hartu zuten¹². Apur bat urrunago, Arabako Okondon, Martin Urtizaustegik salatuta, bertako Marina Otaolari pro-zesua egin zioten sorgina zelakoan. Jendaurrean eta isilpean ibiltzen omen zen sorginkeriatan. Okondo bailaran eta bailaratik kanpo pertsona asko sorgindu omen zuen. Umeak hil egiten omen zituen. Pozoia eta belarrak erabilia pertsonak hil edo gaiztotu egiten omen zituen. Belarrekin gizon eta emakumeak maite-mindu egiten omen zituen, eta mediku-lanak ere egi-ten omen zituen.

Martin Urtizaustegik Marina Otaola auzitara era-man zuen Okondoko alkatearen aurrera, eta Marina preso eduki zuten. Erbestera zigortu zuten. Or-duan Marinak gora jo zuen erreginarengana gortera. Han Marinari arrazoi eman eta libre utzi zuten¹³.

5.17. irudia. Aiako Segurola baserria.



5.11. BOSGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ Parentesi artean guk *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* lehen liburuan argitaratutako agirien erreferentziak ipini ditugu.

² AIERBE IRIBAR, R. M. eta ELORTZA MAIZTEGI, J. Archivo Municipal de Zestoa (1338-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco. 136. zk. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2008. 22. agiria (68, 69. or.).

³ ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (40-43, 90, 91, 220, 285, 320-323, 328, 338. or.).

⁴ HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba (1181-1520) I. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. 116. agiria (398-401. or.).

⁵ AZPILIKUETA, A. *Esklabo azokan tratulari*, in Berria (2006-V-14). Historia (3. or.).

⁶ TRUCHUELO GARCIA, S. La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII). Bekak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. (103. or.).

⁷ ELORTZA MAIZTEGI, J. Archivos Municipales de Eibar (1409-1520) y de Soraluze/Placencia de las Armas (1481-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco. 97. zk. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2000. 22. agiria (112-117. or.).

⁸ DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1997. (307. or.).

⁹ AROZENA, F. Colección de documentos inéditos para la historia de Guipúzcoa 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1958, (20. or.).

¹⁰ PFANDL, L. Juana la loca. Colección Austral, 17. Espasa-Calpe, S. A. argit. Madril, 1945. (115-117. or.).

¹¹ LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. III. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (436. or.).

¹² LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. IV. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1971. (7, 8, 9, 13, 15, 17. or.).

¹³ XX. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorias, 315/15.